

325. Beizamako krimena

The Beizama Murders

Auxen da era etorri dana
bertso batzuek jartzeko,
kulparik gabe preso egon diran
Itsasondotarrantzako;
letra bat ere ez dago izango
iñor ofendituzeko,
eskerrak onak lege-gizonak
zeuzkatela libratzeko.

Millaz ondoren bederatzi eun da
ogei ta seigarren urtean,
Azaroaren amalauetan
egun senalamentean,
negargarri bat gertatu zana
Gipuzkoa'ko partean,
Beizama erriko Korosagasti
baserri etxe batean.

Etxe orretan bizi ziraden
ama ta alaba bakarrik,
lanean zintzo saiatzen ziran
egin gabetan oporrik;
egun orretan arkitu ziran
biak ill da otziturik,
Euskalerrian ez da gertatu
askotan orrelakorik.

Jazinta Odriozola beste alaba
neskame zegona Tolosa,
egun orretako amaikaetan
etxe ortara igo zan;
bere ama ta aizpea illak
billatutzaille bera zan,
aditzerakin ala errira
destetxaetan joan zan.

Jazinta bera parte ote zan
jarririk errezoloso,
kulparik gabe egota're
izan zeikean akaso;
zerbaitegatik sartua zuten
bigarren aldian preso,
ez da gañera libratu ere
garbi jakiñ arte oso.

Agintariak saiatu ziran
nun billatuko usaiak,
ama-alaba il zituztenak
agertutzeko etsaiak;
lendabiziko artu zituzten
ijitano ta artzaiak,

kulparik gabe preso, etzeuden
aien biotzak lasaiak.

Andik urrena Itsasondo'ko
Lizarditara jo zuten
aurrean artu Azpeitia'ko
kartzelara zuzen-zuzen;
periodiko batzuek berriz
gezur aundiak zabaltzen,
oiek kulpante ornen zirala
baita're askok sinisten.

Eriotz aiek bateonbategin
egin zituan serio,
esan lezake alkarrengana
asko zutela odio;
aizken orduan guztion Aitak
kontuan artuko dio,
zenbait familik negar egin du
kaso ori zan medio.

Aita semeak, ama-alabak,
senar eta emazteak,
izan dituzte oso garratzak
gau t'egun, jai ta asteak;
kulparik gabe eraman bear
oinbeste pena tristeak,
orain etxean libre daude ta
aztu bitzaie guzteak.

Ondo dakigu iltzalle oien
billa zorrotz dabilzala,
denok nai degu gaizki egiñak
arren argitu ditzala;
merezi du-ta bizia kendu
edo betiko itzala,
kulpa gabe preso egotetikan
Jainkoak libra gaitzala.

Maiatz illaren ogei ta batean
ta larunbat-arratsean
aitzenekoak aita-semeak
erabat libratu ziran;
poz-dardara bat sartu zitzaigun
askori bai biotzean,
lo-gurerikan inork etzeukan
oiek errian sartzean.

Orra azaldu kulparik gabe
nola egonduak diran,
iñorentzako mesederik ez,
familientzat galeran;
onra emanaz bertsoak kanta
mundu guztien aurrean,

iltzalle krimen lapurrik ezta
Itsasondo'ko errian.

